

Berrikusketa-eredu baten bila

INAXIO LOPEZ DE ARANA ARRIETA

Atarikoa

Aldian-aldian IZOn suertatzen zaigu besteren itzulpenen kalitatea epaitu beharra. Izan ere, itzulpen-hornitzaileak kontratatzeko lehiaketetan, IVAPen argitaratzeko diren testuetan, kanpoko hornitzaileek egindako itzulpenetan, eta gisa horretako lantegietan eskatzen digute epaile-lana egitea, geuk ebatzi behar dugu-eta dena delako testuak behar besteko kalitaterik ba ote duen ala ez. Oraintsu arte, horrelakoetan, hainbat zalantza sortu zaizkigu, ez baita egon batasunik gure berrikusketa-irizpideetan, bakoitzak bere erara eta senak agintzen zionari jarraikiz egiten zuelako zuzenketa-lana. 2016. urtera bitartean ebaluazio-lanetarako erabiltzen genuen eskema ez zen batere zehatza, eta tarte handiegia uzten zuen norberak interpretatzeko: balio-kidetasuna, hizkuntza-egokitasuna, zuzentasuna eta diseinu-egokitasuna zituen ardatz nagusi, eta haien inguruan egiten zen itzulpenen kalitatearen ebaluazioa; gero, pertsona batek bateratu behar izaten zituen itzulpenak ebaluatzen ibilitako zuzentzaileen irizpideak; besteak beste, akatsengatiko penalizazioetan denok bat etortzeko; itzulpenaren ulergarritasuna, koherentzia, kohesioa, erregistroa, adierazgarritasuna eta estiloa berdin baloratzeko; jatorrizko testuarekiko fideltasunarengatik (edo fideltasunik ezarengatik) puntu kopuru bera emateko...

Irizpide-batasun horren premia ikusirik, 2016ko irailean, itzulpenen berrikusketa-eredu berri bat sortzeko lanean hasi ginen IZOk kide batzuk, tresna berri hura ordura arte erabilitakoa baino zehatzagoa eta zuzenagoa izango zelakoan itzulpenen kalitatea epaitzeko. Tresna hura ahalik eta objektiboena izatea da helburua, itzulpenen kalitatea ahalik eta objektibotasunik handienaz ebaluatzeko, itzulpenek berek ahalik eta kalitaterik onena izan dezaten.

Argi geneukan guk proposatuko genuen eredia ezin izango zela oso zehatza izan, unean uneko egoerara eta baldintzetara egokitu behar izango lukeelako. Ez luke zehaztuko zenbat akats diren onargarri itzulpen bat balekotzat jotzeko. Zehatza ez, baina koherentea bai, eta talde-lanean eta irizpide-batasunean oinarritua.

Itzulpen-akatsa

Lehenengo eta behin, argitu dezagun zer den itzulpen-akatsa. Bote lasterrean, esan dezagun itzulpen-akatsa edo -errakuntza edukiontzi moduko bat dela, halako saski-naski bat non definizio guztiak onartzen baitira. Itzulpen-akatsa itzulpena egitean hautatu den baliokide ezegoki batek eragiten du. Sorburu-hizkuntzako mezua xede-hizkuntzara aldatzean egiten den edozein huts edo akats da itzulpen-akatsa. Itzulpen-akatsak sorburu-hizkuntzako testua gaizki, behar beste edo batere ez ulertzearen ondorioz gertatzen dira, edo xede-hizkuntzako gaizki, behar beste edo batere ez berradierazteagatik gertatzen dira.

Itzulpengintzaren munduan, itzulpenak ahalik eta azkarren egitea da garrantzitsuena; ez da munta handikoa testu polit bat sortzea, baizik eta sortutako testuak funtzionatzea sortu zen helbururako.

Eredua(k)

Itzulpenen berrikuspengintzan erreferente diren zenbait aurrekari bibliografiko irakurri eta aztertuta, ohartu ginen ezen, orain arte itzulpengintza orokorrean hainbat eredu proposatu diren arren, euskararen munduan gutxitxo landu izan dela gaia. Horrek sendotu egin zuen gure hizkuntzarako baliagarria izan litekeen ebaluazio-eredu edo -txantilo bat sortzeko genuen asmoa. Euskararako baliagarria eta euskararen ezaugarri atxikirik; horra gure abiapuntuaren zimentarriak.

Ereduek eguneroko itzulpenak eta azterketetako itzulpenak ebaluatzeko baliagarria izan behar zuenez, bi eredu mota sortzea iruditu zitzaigun egokiena; bi, baina pare-parekoak biak ere. Segidan duzue eguneroko itzulpenak ebaluatzeko sortu genuena:

Eguneroko itzulpenetarako ebaluazio-eredua

| | | |
|----|---|--|
| 1. | ULERMEN-ARAZOAK: jatorrizkoak esaten duen gauza bera esan behar du itzulpenak | |
| | • 1.1. Jatorrizkoa gaizki ulertu da | |
| | • 1.2. Zerbait falta da | |
| | • 1.3. Zerbait erantsi da | |
| 2. | XEDE-TESTUaren zuzentasuna, arauei eta gomendioei dagokienez | |
| | • 2.1. Ortografia | |
| | • 2.2. Puntuazioa | |
| | • 2.3. Gramatika | |

| | | |
|----|---|--|
| 3. | XEDE-TESTUaren zuzentasuna, esanahiari dagokionez | |
| | • 3.1. Terminologia/Lexikoa | |
| | • 3.2. Koherentzia | |
| 4. | XEDE-TESTUaren zuzentasuna, estiloari dagokionez | |
| | | |
| 5. | BEREZIKI NABARMENTZEKOA: hautu txar-txarrak zigortzeko (itzulpena atzera botaz) | |
| | | |
| 6. | ARRETA-AKATSAK | |
| | | |

| |
|---|
| Itzulpenari eta zuzenketari buruzko datuak |
| Espediente-zenbakia: Itzultzailea: Zuzentzailea: Hitz-kopurua (sorburu-testua): Azaleko zuzenketa edo zuzenketa sakona: Oharrak: |

EREDUARI BURUZKO ARGIBIDEAK

I. ULERMEN-ARAZOAK: jatorrizkoak esaten duen gauza bera esan behar du itzulpenak

I.1. Jatorrizkoa gaizki ulertu da

Sorburu-testua: «... donde se ha observado la eficacia de este tipo de medidas en relación con la finalidad perseguida...»

Xede-testua: «... ez da ikusi mota horretako neurriak eraginkorrak direnik, bete nahi duten helburua kontuan hartuta...»

Sorburu-testua: «... la fractura y la erosión a lo largo de periodos muy dilatados de tiempo, por mucho que el ojo humano avizore siluetas conocidas.»

Xede-testua: «... hausturaren eta higaduraren ondorio dira, nahiz eta pertsona batzuek urrunean silueta ezezagunak ikusi.»

- 1.2. Zerbait falta da
Sorburu-testua: «... udaletxean, banketxeetan eta osasun-zerbitzuetan»
Xede-testua: «... en bancos y servicios sanitarios»
- 1.3. Zerbait erantsi da
Sorburu-testua: «Ordezkari legez etorri zen bilerara»
Xede-testua: «Acudió a la reunión en calidad de representante legal»
2. XEDE-TESTUaren zuzentasuna, araei eta gomendioei dagokienez
 - 2.1. Ortografia (letra larria/xeha, etzana, kaxak, siglak, ortotipografia-kontuak...).
Atal honetan, IZOren irizpide-bildumako ortotipografia arloko itzulpen-irizpideak ez betetzea ere sartuko dugu.
«EAE-ko erakundetze prozesua aspaldian hasi zen» (siglen deklinazio-marka zuzenean lotzen da, marrarik gabe)
«Espainiako Gobernuak bat-batean erabaki zuen B.E.Z.a igotzea» (sigletan ez da punturik erabiltzen)
«KUDEAKETA SISTEMA DEFINITZEN DUTEN ELEMENTUAK» (IZOren itzulpen-irizpide baten arabera, maiuskulaz idatzitako testuetan minuskulaz idatzita baleude bezala jokatu behar da, marratxoari dagokionez; beraz, marra jarri beharra dago KUDEAKETA eta SISTEMAREN artean).
 - 2.2. Puntuazioa
«Egun on zuzendari jauna:» (deikiaren koma falta da).
 - 2.3. Gramatika (atal honetan, IZOren irizpide-bildumako morfosintaxia arloko itzulpen-irizpideak ez betetzea ere sartuko dugu).
«Publizitate aktiboa atzitzeko zenbait tresnak eskura izatera, zenbait modutan, haien jatorriko iturrien arabera.»
«Osasun sailburua» (IZOren morfosintaxia arloko itzulpen-irizpide baten arabera, *Osasuneko sailburua* behar du).
3. XEDE-TESTUaren zuzentasuna, esanahiari dagokionez
 - 3.1. Terminologia/Lexikoa
Sorburu-testua: «Archivo» (informatika arloa)
Xede-testua: «Artxibo» (Fitxategi jarri beharrean)
Gainera, atal honetan, IZOren irizpide-bildumako terminologia arloko itzulpen-irizpideak ez betetzea ere sartuko dugu; esaterako:

«2016ko apirilaren 1eko EAO, 210. zk.» (IZOren terminologia arloko itzulpen-irizpide baten arabera, «2016ko apirilaren 1eko BOE, 210. zk.» behar du).

3.2. Koherentzia

Sorburu-testua: «Pliego de condiciones».

Xede-testua: «Baldintza-agiria» eta «baldintza-plegua» nahas-mahas testu berean.

4. XEDE-TESTUaren zuzentasuna, estiloari dagokionez

Atal honek esaldi barruko ordenari eta erredakzio pobreaki dagozkion akatsak bil-tzen ditu.

Esaldi barruko ordena gaizki ematearen adibide bat:

«Demanda betearazlea aurkeztu ondoren, Auzitegiak, horretarako prozesu-baldintzak eta betekizunak gertatzen badira, titulu betearazleak forma-irregulartasunik ez badu, eta eskatu jardun betearazlea tituluaren izaera eta edukiarekin bat badator, exekuzio-agindu orokorra barne hartuko duen autoa gaindituko du».

Erredakzio pobreak hainbat agerpen-molde ditu: errepikak, okerreko kalkoak, anafora-/katafora-joko okerrak, gaizki erabilitako nominalizazioa... Huts horien ondorioz, esaldi ilunak, astunak, traketsak, narrasak, nahasiak, ulergaitzak eta hala-koak sortzen dira. Hona adibide batzuk:

«... babestuta dagoela publizitate prozesalaren printzipioagatik»

«Hari dagokio enkantea abiaraztea, beharrezko datuak gaineratu eta publizitatea agintzea, eta hura eten edo abiaraztea, amaierara arte etengabeko kontrola mantendu-z, eta horretarako, Enkanteen Atariarekin harreman pribilegiatua mantenduz»

«Enkantearen iragarkiari eta publizitateari dagokien edukia»

Gainera, atal honetan, IZOren irizpide-bildumako testugintza arloko itzulpen-iriz-pideak ez betetzea ere sartuko dugu; esaterako:

«Europar Batasunaren araudietan xedatutakoa kaltetan gabe...» (IZOren testugin-tza arloko itzulpen-irizpide baten arabera, Europar Batasunaren araudietan xedatu-takoa ezertan eragotzi gabe... edo halakoren bat behar du).

5. BEREZIKI NABARMENTZEKOAK: hautu txar-txarrak zigortzeko (itzulpena atzera botaz)

Atentzia ematen duen zerbait, txarrerako. Alderdi negatiboengatik nabarmentzea.

Hautu txar-txarren arloan, terminologian, estiloan edo dena delakoan batere ez asma-tzea da akatsetako bat, esaterako.

6. ARRETA-AKATSAK

Atal honek akats faktualak eta akats metodologikoak biltzen ditu.

Akats faktualak: izenak, urteak, zenbatekoak... gaizki ematea. Esaterako:

Sorburu-testua: «Vitoria-Gasteiz, a 30 de noviembre de 2016»

Xede-testua: «Donostia, 2016ko azaroaren 30a»

Akats metodologikoak: erratak, despistak, eta berrikusketa ezak edo ganora faltak eragindako akatsak. Esaterako:

«Ongiaterik eza.»

«Halaber, nabarmendu...» (behar baino zuriune gehiago edo gutxiago jartzea)

«la razón de ser de un una lengua» (beharrik gabeko errepikapenak egitea)

Azterketetako itzulpenetarako ebaluazio-eredua

Lehenago aipatu bezala, azterketetako edo esleipenetako itzulpenak ebaluatzeko eredua eta eguneroko itzulpenak ebaluatzekoa berdintsuak dira. Hain zuzen ere, eguneroko testuenari puntu eta erdi bat erantsi genion azterketena sortzeko, gainerako guztiak balio duelakoan. Honela geratu da:

| | | | |
|----|---|--|--|
| 5. | BEREZIKI NABARMENTZEKOA: hautu txar-txarrak zigortzeko (itzulpena atzera botaz) eta on-onak saritzeko atala | | |
| | | | |
| 6. | DISEINUA eta FORMATUA | | |
| | | | |

Eredu honetan, 5. puntuak hautu txar-txarrak ez ezik on-onak ere biltzen ditu. Honela geratzen da, beraz:

5. BEREZIKI NABARMENTZEKOA: hautu txar-txarrak zigortzeko (itzulpena atzera botaz) eta on-onak saritzeko atala

Atentzioa ematen duen zerbait, onerako edo txarrerako. Alderdi positiboengatik edo negatiboengatik nabarmentzea.

Hautu on-onen arloan, «baliokidetasun onak / oso onak», hau da, gaztelaniaz «hallazgos» deitu izan direnak egitea. Edo beste eremuren batean lan aparta egitea. Esaterako, erdaraz guztiz korapilatuta dagoen esaldi bat euskaraz zuzenduta idaztea saritzekoa litzateke, bai eta jatorrizkoan dauden akatsak, inkoherentziak eta halakoak argitzea helburu duten albo-oharrak eranstea ere.

Hautu txar-txarren arloan, ordea, terminologian, estiloan edo dena delakoan batere ez asmatzea, esaterako.

Hau da puntu berria:

6. Diseinua eta formatua

«IZOren erabiltzaileentzako jarraibideak» agirian aipatzen diren itzultzeko/berrikusteko testuak lantzean bete beharreko arauak (III. kapitulua) ez betetzea; esaterako, testua gaizki editatzea.

Paragrafoen jatorrizko testuaren antolamendua ez errespetatzea.

Letra biribila, azpimarrak-eta ez errespetatzea.

Beste formatu batean bidaltzea dokumentua.

Formatu ez-editagarri batean bidaltzea dokumentua.

Etiketak gaizki kokatzea testuan.

(...)

Nola puntuatu

Eguneroko itzulpenak ebaluatzeko ereduari, puntu bidezko sistema bat erabiltzea proposatzen dugu itzulpen horietan aurkitzen ditugun akatsak islatzeko. Puntuak gorriak eta handiak izango dira. Puntu batek «gaizki» esan nahiko du; alegia, txantiloia atal batek behar besteko kalitaterik ez duela. Bi puntuk, «oso gaizki» esan nahiko du, eta hiru puntuk, «oso-oso gaizki». Puntu gorri horren letra-mota eta neurria: Calibri 28, gorria; non aurkitu: «Txertatu», «Ikurra», «Ikur gehiago» (Bullet, 2022 karaktere-kodea). Badakigu proposatzen dugun puntuatze-modua ez dela oso zehatza, baina uste dugu balekoa dela gure eguneroko zereginetarako. Adibidez:

| | | |
|----|---|-------|
| I. | ULERMEN-ARAZOAK: jatorrizkoak esaten duen gauza bera esan behar du itzulpenak | |
| | • 1.1. Jatorrizkoa gaizki ulertu da. | ● |
| | • 1.2. Zerbait falta da. | ● ● |
| | • 1.3. Zerbait erantsi da. | ● ● ● |

Kasu honetan, bistan denez, ulermen-arazo nabariak izan ditu itzultzaileak itzulpena egiteko orduan. Balorazio hau egin du zuzentzaileak: jatorrizko testuaren ulermena txartzat jo du; jatorrizko testuaren zati bat edo batzuk itzuli gabe utzi ditu (arloan oso gaizki dago, zuzentzailearen iritzi); baina are okerrago dago 3. atala, itzulpenari zerbait erantsi ote zaion esaten diguna.

Zenbaki zehatzik ez digu ematen, baina zer hobetu behar den eta zer ez argitzen digu, eta, horrelako itzulpenen kasuan, nahikoa dela uste dugu.

Azterketetako itzulpenak ebaluatzeko eredurako, ordea, ez dugu puntuatze-irizpiderik emango, gai hori unean-unean ebatzi behar delakoan. Izan ere, errakuntzak zigortzeari dagokionez, ez dago formula magikorik, kasu guztietarako baliagarria izan daitekeen miragarritzko irizpide-sortarik. Errakuntzen larritasuna neurtzeko, errakuntzek berek eragiten dituzten ondorioak neurtu behar dira. Izan ere, testu batetik bestera aldatzen da larritasun hori, besteak beste aldagai hauen araberakoa baita:

1. Errakuntza horrek nolako eragina duen sorburuko testuan. Alegia, ideia nagusiari eragiten ote dion, ala bigarren mailako ideia bati.
2. Errakuntza horrek xede-testuaren koherentzian eta kohesioan nolako eragina duen.
3. Xede-testuak nolako komunikagarritasun-maila duen.
4. Itzulpenak izan behar duen helburuari nolako kaltea eragin dion.
5. Zer itzulpen mota den.
6. Zuzeneko ala alderantzizko itzulpena den.
7. Itzulpenak zer helburu duen.
8. Itzulpena egiteko zer metodo erabili den.
9. Itzulpena zer testuinguru soziohistorikotan egin den.

Irizpide horiek guztiak edo beste batzuk kontuan hartuta, dagokionak (erakunde, elkarte nahiz eskatzaile partikular izan) erabaki beharko du zer lehenesten eta zer gutxiesten duen itzulpen bakoitzean, horren araberakoa izango da-eta puntuatze-sistema. Gu besteren praktetan ez gara sartuko.

BIBLIOGRAFIA

- Boyd, Martin (2014). *Un curso acelerado en la corrección de traducciones*. Bertsio elektronikoa: <https://labur.eus/mVnnd>
- Colina, Sonia (1997). «Teaching Translation to Undergraduates: What Errors Reveal». *Translatio*, 16/3, 245.-285. or. Bertsio elektronikorik ez dago.
- Dimitriu, Rodica (2004). «Omission in Translation». *Perspectives: Studies in Translatology*, 12/3, Kopenhageko Unibertsitatea, 163.-175. or. Bertsio elektronikoa: <https://labur.eus/pDhys>

- Espainiako Kanpo Gaietako Ministerioa. Hizkuntzen Interpretaziorako Bulegoa, OIL (2016). «Criterios para la corrección de los exámenes de traducción». Bertsio elektronikoa: <https://labur.eus/aMQwo>
- Firmenich Montserrat, Silvia (2014ko urria). *Evaluación de traducciones con fines pedagógicos*. Jaume I Unibertsitatea. Ikerketa, Itzulpen eta Interpretazioko unibertsitate-mastera. Bertsio elektronikoa: <https://labur.eus/dRZyA>
- Larose, Robert (1989). «L'erreur en traduction: par delà le bien et le mal», *TTR*, 2/2, Association canadienne de traductologie/Université Concordia/Université du Québec à Trois-Rivières, 7.-10. or. Bertsio elektronikoa: <https://labur.eus/IrxoL>
- López Ciruelos, Andres (2004). «Calidad y traducción (primera parte)». *Punto y coma. Boletín de las unidades españolas de traducción de la Comisión Europea*, 85, 9.-15. or. Bertsio elektronikoa: <https://labur.eus/1d9RT>
- López Ciruelos, Andres (2004). «Calidad y traducción (segunda parte)». *Punto y coma. Boletín de las unidades españolas de traducción de la Comisión Europea*, 86, 6.-9. or. Bertsio elektronikoa: <https://labur.eus/BCCJJ>
- OCW - UMA (Málaga Unibertsitatea) (2017). «Baremo de corrección de traducciones directas». Bertsio elektronikoa: <https://labur.eus/Y92E2>
- Parra Galiano, Silvia (2005). «La revisión de traducciones en la traductología: aproximación a la práctica de la revisión en el ámbito profesional mediante el estudio de casos y propuestas de investigación». Doktorego-tesia. Granadako Unibertsitatea. Bertsio elektronikoa: <https://labur.eus/H2sbr>
- Pym, Anthony eta Caminade, Monique (1995). «L'analyse des erreurs traductionnelles et l'espace-temps de l'enseignementn Les langues étrangères». Roser Gauchola, Claude Mestreit eta Manuel Tost Planet (argitaratzaileak). *Les langues étrangères dans l'Europe de l'Acte unique*, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko ICE institutua. Bertsio elektronikoa: <https://labur.eus/xEltR>
- Romana García, María Luisa (2005). «Corregir más deprisa: herramientas de ayuda a la corrección de traducciones». Actas del II Congreso Internacional de la Asociación Ibérica de Estudios de Traducción e Interpretación. Madrid, 9-11 de febrero de 2005. Madril: 363.-381. or. Bertsio elektronikoa: <https://labur.eus/VJucE>
- Santoyo, Julio Cesar (1994). «Por qué yerra el traductor: análisis de textos y errores». Purificación Fernández Nistal (argitaratzailea). *Aspectos de la traducción inglés-español: segundo curso superior de traducción*. Valladolid, Valladolideko Unibertsitatea. Bertsio elektronikoa: <https://labur.eus/6lSnX>
- Tolosa Igualada, Miguel (2013). *Don de errar. Tras los pasos del traductor errante*. Jaume I Unibertsitatea. Bertsio elektronikorik ez dago.

Resumen

En ocasiones, el Servicio Oficial de Traducción o IZO, órgano adscrito al IVAP, realiza trabajos de revisión de traducciones llevadas a cabo tanto por particulares como por empresas de traducción ajenas a la Administración, a fin de evaluar la calidad de las mismas. Hasta hace poco el IZO utilizaba para esos menesteres un esquema que adolecía de falta de concreción y que dejaba demasiado margen a la interpretación de cada corrector o evaluador. Ello provocaba una diversificación en los criterios de revisión de los textos; cada persona correctora tenía su propia forma de corregir, siguiendo en gran medida lo que su propia intuición le dictaba. Esta situación de inconcreción generaba multitud de dudas entre las personas correctoras. Conscientes de la necesidad de aunar criterios en el ámbito de la corrección traductológica, el IZO ha creado un modelo o plantilla para la revisión y evaluación de textos traducidos con el fin de facilitar la labor a las personas correctoras o evaluadoras. En este sentido, ha propuesto un instrumento que permite evaluar la calidad de las traducciones con la mayor objetividad posible. Con esa motivación nació el modelo que aparece descrito en este artículo y que sirve tanto para evaluar traducciones cotidianas como traducciones que se presentan en exámenes o concursos públicos. Esta es la aportación que ha querido hacer el IZO en esta ocasión y que debiera ser completada y mejorada en el futuro para bien de la propia traductología en euskera.

Résumé

Le Service Officiel de Traduction (IZO) du Gouvernement basque est parfois chargé de réviser les traductions réalisées par des particuliers ou par des entreprises de traduction étrangères à l'Administration, afin d'évaluer la qualité de ces travaux. Jusqu'à récemment, l'IZO utilisait pour ce faire une méthode peu rigoureuse qui laissait libre cours à l'interprétation de chaque correcteur ou personne chargée de faire l'évaluation. Cela donnait lieu à la diversification des critères au moment de réviser les textes; chaque correcteur avait sa propre méthode de correction, dictée, en grande mesure, par son intuition. Un tel manque de précision provoquait de nombreux doutes chez ces professionnels. Pour mettre fin à cette situation, l'IZO a créé un modèle de révision et d'évaluation de ces textes, afin de faciliter la tâche des personnes chargées de les corriger ou de les évaluer. Il s'agit d'un instrument qui permet de mesurer la qualité des traductions avec le plus d'objectivité possible. Ce modèle, décrit dans cet article, peut être appliqué dans les traductions courantes tout comme dans celles présentées lors des examens et des concours publics. Cette contribution du Service Officiel de Traduction à la traductologie en euskara, mérite d'être complétée et améliorée dans l'avenir, au bénéfice de cette discipline.

Abstract

Once in a while, the Official Translation Service (Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala, IZO) of the Basque Government, an agency affiliated with the Basque Institute of Public Administration (Instituto Vasco de Administración Pública, IVAP), reviews translations done both by private translators and by translation companies outside the Administration in order to evaluate their quality. For this purpose, the IZO has until recently used a scheme that showed a clear lack of precision and that left too much to the interpretation of each corrector or evaluator. This brought about a lack of agreement regarding review criteria and each IZO corrector had his or her own way of correcting, following his or her own intuition to a great extent. Aware of the need to reconcile criteria for correcting translation, the IZO has created a model or template for the review and evaluation of translated texts according to specific criteria in order to facilitate the work of correctors and evaluators. The model described in the present article serves to evaluate with the greatest possible objectivity both ordinary translations and translations submitted for exams or public competitions. This contribution from the IZO remains to be completed and improved in the future for the good of Basque translation.